


# Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1996ko urriak 24 • 108.zka. •

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 7-2. EZK.  
ARETXABAleta



Langai, kolokaziorako zentrua

Cruz Maria Ansoalde zineko arduraduna

Kross herrikoia

**Txapeldunak**

# Gaur egun gidatzeak prezio haundia du.

**CONTINENTAL NEUMATIKOAK**  
 145 R13 **6.853** Pta.  
 155/70/13 **7.670** Pta.  
 165/70/13 **9.064** Pta.  
 185/65/14 **11.278** Pta.  
 MICHELIN eta GOOD YEAR en ere  
 beharpenak  
 Eskulana eta  
 BEZa barne

**FRENOTAKO PASTILAK**  
 R-5, Cilo, R11, R19, Express  
**6.285** Pta.  
 Bestelako modeloak  
**7.573** Pta.  
 Eskulana eta  
 BEZa barne

**ISILAK**  
**%35eko**  
**Beharapena**  
**piezetan**

**AMORTIGUADOREAK**  
**%45eko**  
**Beharapena**  
**piezetan**

**OLIOA**  
 1.700 cc. azpitik (Gasolina)  
**3.900** Pta.  
 1.700 cc. gainetik eta diesela  
**4.900** Pta.  
 Turbo eta Multibalbulak ez  
 daude barne  
 Eskulana eta  
 BEZa barne


**BATERIAK**  
 45 A: **9.107** Pta.  
 50 A: **10.009** Pta.  
 70 A: **13.033** Pta.  
 Bi urteko garantia  
 Eskulana eta  
 BEZa barne

**URTEBETEKO**  
**RENAULT**  
**GARANTIA**



Eskaintza 1996ko abenduaren 31a artekoa da

ZURE KOTXEA ERABILTZeko IDEIAK.




**RENAULT**

ERABILTZeko  
 PLAZERRA

## MECA TAILERRAK, S.A.

**RENAULT kontzezionarioa**


San Andres Auzoa, 8 Tinoa: 79 50 12  
 ARRASATE



## Musika instrumenturik jotzen duzu? Zein jotzea gustatuko litzaizuke?

Joakin Lizarralde  
(Jubilatua)

Ez, ez dut sekula instrumenturik jo, baina asko gustatzen zaizkit. Gehien akordeoia gustatzen zait baina ez nuen aukerarik izan. Orain ez dut denborarik.




Mari Carmen Perez  
(Langilea)

Ez dut sekula instrumenturik jo baina gitarrara espainola jotzea gustatuko litzaidake.



Kattalin Antxia  
(Ikaslea)

Txistua jotzen dut. Iaz hasi nintzen ikasten eta instrumentu guztietatik gehien gustatzen zaidana da.



Jose Luis Arratibel  
(Langilea)

Organoa jotzen dut eta gustatzen zait. Ez dut solfeorik ikasi, entzunez jotzen ikasi dut. Honetaz gain akordeoia ere asko gustatzen zait.



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



ESKUTITZAK

## ERREGE KABALGATA

**Kaixo lagunok:**

Urtetik urtera Errege Kabalgatak beherakada haundia izan du. Gazteak garenez betidanik ezagutu dugu kabalgata. Gure haurtzaroko oroimenak gogora dakarkigu hango gerlari, errege, zaldi, pajeak... Benetakoak ziruditen!

Gaur agian, ez dugu perspektiba berdinetik ikusten eta lehengo errege, gerlari, pajeak... guretzat seriotasuna galdu dute, gazteegiak baitira horrelako ekintzetan parte hartzen dutenak.

Horregatik zuei herritarroi, proposamen hau luzatzen dizuegu: jubilatua, guraso, adineko gazteak... lehengo moduko kabalgata ikusgarria egitea nahi dugu.

Beraz, eskutitza irakurtzen ari zaretenok inguruan komentatu eta Kultur Etxera etorri danontzako lana baitago: bai kabalgatan parte hartzeko, bai erropak konpontzeko, bai egun horretan laguntzeko.

**Herriko ohiturak egin ditzagun geureak.**

Carmen A.I.

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Ana Eriz. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta

1996ko urriak 24 - 3. or.

# Langai: lana aurkitzeko beste aukera bat

Lana bilatzen ari diren edo lanez aldatu nahi duten guztiak beste lan aukera bat dute, Langai, kolokaziorako Euskal zerbitzuaren bitartez.

Langai, Eusko Jaurlaritzak martxan jarri berri duen zerbitzua da. Euskadiko lan merkatuaren bitartekari nagusia izan nahi du. Lan eskaria eta eskaintza modu arin, garden eta eraginkor batean elkarlotzea du helburu.

Kolokaziorako Euskal zerbitzua, lana bilatzen ari diren langile edo langabetuei zabaldua dago, baita lanpostu bat eskaintzen duten enpresariei ere. Horrela lan eskaria eta eskaintza elkarlotzeko.

Zerbitzua zabalik dago dagoeneko baina momentuz lan eskaria egiten dutenentzat bakarrik. Lana bilatzeko aukerarik ez da egongo abenduaren 1a arte gutxienez. Egun honetan enpresariei lan eskaintza egiteko epea zabalduko baitzaie. Modu honetan enpresarien lan eskaintzari ahalik eta egokien erantzutea nahi da.

## Elkarrizketa lortzeko bideak

Lan eskaria egiten duenak hiru aukera ditu Langaiko zentru laguntzaileetarako batekin elkarrizketa bat lortzeko.

Langaik berak ez du elkarrizketarik egingo, elkarrizketarako zita


ipini baino. Horretarako Langaiko telefonora deitu daiteke, 901 222 901 zenbakira.

Bestetik, zuzenean jo daiteke zentru laguntzaileetarako batetara eta gai honen arduradunekin egon. Azkenik, azaroaren 6tik aurrera, zentru laguntzaile hauetako batzutan jarriko den kutxatila automatikoez ere baliatu ahal izango da elkarrizketa zita ipintzeko.

## Aretxabaletako Institutoa: Langai zerbitzuaren laguntzaile

Aretxabaletako Institutoa Langai zerbitzuaren laguntzaileetarako bat da. Bere helburua inguruko lan eskaintza eta eskaria modu eraginkor, arin eta garden batean elkarlotzea da.

Dagoeneko zerbitzua martxan da. Zentru horretako profesionalak lan eskaera egin duten pertsona desberdinak



Aretxabaletako Institutoa Langai zerbitzuko laguntzaileetarako bat da

elkarrizketatzen hasita daude. Ondoren bere curriculumak beteko du eta pertsona horren datuak, kolokaziorako martxan jarri berri den zerbitzu honen oinarritzko datuetan sartuko dira. Ondoren ordenagailua arduratuko da eskaintzak eta eskariak lotzeaz. Enpresariak behar dituen langileak automatikoki aukeratuak izango dira.

Aretxabaletako Institutoarekin batera, Arrasateko Bastida akademia, Deba Garaiko Mankomunitatea eta Mondragon Eskola Politeknikoa ere badira zerbitzu hau eskaintzen duten zentruak.


Gai honen inguruko informazio gehiago nahi izan ezker edo elkarrizketa baterako zita hartzeko 901 222 901 telefonora deitzea da egokiena.

**BR** Amaia-Berri, S. L.

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



**ARGI-PLASTIC**

Leihoak egiten dira

Zigarrola 1 8 pabiloia

ARRASATE

Tfnoa: 79 62 18/ Fax: 77 11 30

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zurre zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

**MENDIOLA  
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita


Tfnoa: 71 43 45  
ESKORIATZA



## Domu Santu eguna

Azaroaren leian, Domu Santu eguna ospatuko da. Ohitura den moduan, egun honetan kanposantura bisita egiten da, hildakoetaz gogoratu eta haien alde otoitz egiteko.

Egun honetan hildako familiartekoei lorak eramateko ohitura dago. Horregatik, kanposantura hurbiltzen zaretenok txukun eta polita aurkituko duzue.



Mitarte kalean, Haizea tabernako aldazbeheran aldaketa txiki bat egon da trafikoaren seinalizazioari dagokionez. Orain artean ezkereruntz eta eskumaruntz hartu zitekeen baina hemendik aurrera eskumara bakarrik hartu ahal izango da, ezkerretara hartzea debekatua egongo da.



## Antonio Astigarraga Abade berria

Oraindik ez du lagun asko ezagutzen, Antonio Astigarraga herriko abade berria. Azkoitiarra da izatez eta 31 urte ditu.

Hemendik aurrera bera arduratuko da herriko parrokiatz eta bertako pastoralaz. 6 urtetarako du izendapena. Don Bitorianok auzoetakoen ardura izango du.

Antoniok ez ditu oraindik egun asko egin gure herrian, baina parrokiari aurkitu duenaz pozik azaltzen da, borondatezko jendea aurkitu duela dio.

Beregan berriz, herritarrek fededun bat aurkituko dutela dio.

Jai giroa ez du horrenbeste atsegin baina lasai berba egin eta arazoak dituzten parroki inguruko jendeari laguntzeko beti egongo da gertu.

Oraindik egun gutxi egin ditu gure herrian eta aurrerantzean izango dugu bera hobeto ezagutzeko denbora.

## EKIN BIDEO

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak... Enpresendako promozio bideoak.


Eskola eta Elkarteendako promozioak eta ekintza bereziak. Etxeetan grabatutako bideoen muntaiak.

Otalora 15 • ARETXABALETA •  
Tfnoa: 79 78 37

## TXIMAK ileapaindegi mistoa



Herriko Plaza, 5 - behea  
Tfnoa: 79 83 64  
ARETXABALETA



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792944

## Behobia-Donostia

### argazkia ateratzeko

Azaroaren 10ean Behobia-Donostia lasterketa herrikoian parte hartzeko asmoa duten atxabaltar guztiei urriaren 26an eguerdiko 12,30etan kiroletxean taldeko argazkia aterako zaie.

Puntualitatea eskatzen da.

### autobusa

Aretxabaletatik Behobia-Donostia herri lasterketara joateko autobusa antolatu da.

Joan gura duenak kiroletxean eman behar du izena azaroaren 1a baino lehenago, 79 64 61 telefonora deituta.

Autobusaren prezioa 2.000 pezetatakoa da

sobratzen dena bazkarirako geldituko da. Lasterketa ostean Zarautzeko jatetxe batean bazkalduko da.



## VIII. Loramendi Literatur lehiaketa antolatu da

Loramendi E. Elkarteak VIII. eskola arteko Loramendi literatur lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan Aretxabaletan jaio, bizi edo ikasten duen edonork har dezake parte. Lehiaketak bi sail izango ditu: poesia eta ipuina eta gaia librekoa izango da.

Lau mailatan banatuko da: Lehen hezkuntzako 2. eta 3. zikloa, D.B.H.ko 1. zikloa eta azkena 15etik 18 urtera bitartekoa.

Lanak "Eskola arteko VIII. Loramendi Literatur Lehiaketa" izenburuaz, Loramendi Elkartearen lokalera bidali beharko dira. Lanak aurkezteko azkenengo eguna abenduaren 20a da.

Sariak 1997ko urtarrilaren 22an emango dira jakitera. Sariak bonotan emango dira, gero hainbat dendetan trukagarri izango direnak. Partaide guztiek saria jasoko dute.

Informazio gehiagorako deitu 77 09 70 telefonora.

## Kabalgata

### bai ala ez?

Azken urteotan kabalgatak beherakada nabarmena izan du herrian. Umeak izan dira kabalgatan parte hartu dutenak eta seriotasuna galdu du. Hori dela eta, kabalgataren etorkizunaz berba egiteko, urriaren 15ean bilera egin zuten Udaleko kultura sailekoek, Santa Rita eta Kurtzebarriko guraso elkarteko eta Ortzadarreko ordezkariarekin batera.

Bileran kabalgata egiten jarraitzea merezi duen ala ez eztabaidatu zen.

Erantzuna baiezkoa izan zen baina horretarako nagusiagoek parte hartu beharko luketela erizten zen. Aukera desberdinen artean, eskoletako gurasoena, herriko taldeena eta Sendotza egiten ari diren neska-mutilena izan zen. Gai honekin jarraitzeko eta jendea gertu dagoen ikusteko urriaren 29an beste batzar bat egingo dute.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55



Urriaren 9an egin zuen aurkezpena Euskalan Elkarteak Amaia Antzokian

## Euskalan Elkarteak martxan da aurkezpena egin ondoren

Urriaren 9an egin zuen aurkezpena Euskalan, euskeraren erabilera lan munduan bultzatzeko sortu berri den elkarteak. Jendeak ondo erantzun zuen eta Amaia Antzokian gai honen inguruko interesa duten euskaltzale ugari bildu zen.

Aurkezpenean atal desberdinak ikutu ziren: elkar-teen helburuak, 97rako asmoak, planaren nondik-norakoak...

Jose Ramon Elorzak, Elkarteko zuzendariak, garbi utzi zuen euskarak azken urteotan izan duen bilakaera positiboa, bai irakaskuntzan, komunikabidetan eta , administrazioan ere. Hala ere, euskerari lan-munduan eskaintzen zaion tratamendua

kezkgarria zela gehitu zuen.

Horregatik sortu berri den elkarte honek euskeraren erabilera lan munduan bultzatzea du helburu: ahozkoan nahiz idatzizkoan, kanpoko zein barruko harremanetan eta komunikazio formal zein informaletan. Bide batez, euskara lan-hizkuntza bihurtuz.

Planaren oinarrian euskaldunak badaude ere alderdi guztiekin negoziatu beharra eskatzen du honek, bai euskaldun eta erdaldunekin. Langile guztien partehartzea eskatzen du, guztien adostasuna eta onarpena beharrezkoak izango dira horrelako egitasmo bat aurrera ateratzeko.

## Ortzadarrekin zapaturu-zapaturu ekintzak

Urtero egin ohi duen moduan Ortzadar Atsedan taldea zapaturu ekintzekin hasiko da berriro ere. Azaroaren 9tik aurrera zapaturu-zapaturu, arratsaldeko 4etatik 6etara bitartean, 6tik 15 urtetara bitarteko neska-mutilentzako hainbat ekintza antolatuko dituzte, jokuak, irteerak... Hori dela eta, 6tik 15 urte bitarteko guztiek aukera ona dute Ortzadarrekin ondo pasatzeko. Apuntatu nahi izan ezkeru, azaroaren 4tik 8ra bitartean egin daiteke Ortzadarreko lokalean (Herriko plaza 1, 3. ezk). Orduetgia 5etatik 8etara bitartekoa da.

Izena emateko orduan 1.500 pezeta ordaindu beharko da segurua. Argibide gehiagorako deitu 79 01 84 telefonora.

## Hiruatzek antolatuta Arte Martzialen emanaldia Arrasaten

Hiruatz, Aretxabaletako 3. mundu taldeak, Arte Martzialen emanaldia antolatu du urriaren 26rako.

Ekitaldia arratsaldeko 3retan hasiko da Arrasateko Musakolako kiroldegian eta 3 ordutako iraupena izango du. Jasotako dirua Bukavu proiektuarendako izango da, hau da, Ruandako errefuxiatu eta zairetarrentzat eskolak eraikitzeko.

Zazpi disziplina landuko dira emanaldian: Aikido, Judo, Nin Jutsu, Jui Jitsu, Kung Fu, Karate eta Taekwondo.

## Degurixako bidea moztuta

Degurixara igotzen zuten kotxe kopurua gero eta haundiago zela ikusita, bertan artzain egiten dutenek eskatuta Udalak moztu egin du Degurixara joaten den bidea. Hemendik aurrera bertan interesen bat dutenek bakarrik igo ahal izango dute kotxez, artzaiak, txaboletako jabeak... Itxitura hau errespetatzea eskatzen da mendira joaten zareten guztioi.

### ARETXABALETA ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

### Maritxu Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA



Iparagirre, 4 Tfnoa.79 21 24

### INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 79 96 66  
Fax: 77 10 33



**ZUZENDARIA:** Andrew Bergman  
**AKTOREAK:** Demi Moore (Erin Grant), Armand Assante (Alan Garcia), Ving Rhames (Shad), Burt Reynolds (Senador Dilbeck), Rumer Willis (Erinen alaba).

# Zinea

## Striptease

(Urriak 25, 26, 27, 28)

Erin Grantek (Demi Moore) FBIko idazkari lana utzi eta Stripteaseko dantzari lana hartu beharko du Floridako gau-club batean.

Ez du beste aukerarik, epaileak bere alabaren zainketa kendu dio eta bere senar ohiari (Darrell) utzi dio. Azken hau poliziaren laguntzailea eta konfiantzazkoa da baina baita drogazalea ere. Bere alaba zaintzeko arduragabea da.

Guzti honegatik Erinek bere alaba berreskuratzeko borrokatu beharko du eta horregatik "Stripper" lana onartzen du. Abokatu on bat ordaintzeko diru samurra lortuko du horrela.

Baina arazoak laster sortuko dira neska honen inguruan. Hauetatik irtezeko mila istorio pasa beharko ditu.

## Eraser

(Azaroak 1, 2, 3, 4)

John Kruger goi mailako polizia federalak Lee Cullen babesteko ardura du. Azken honek oso pistola bereziak eta sofistikuak egiten dituen arma enpresa baten lan egiten du. Hauetako pistola bat gaizkile baten eskuetara pasatzeko plana susmatu eta salatzen duenean Cullenen bizitzak ez du txakur haundirik balioko. Horregatik Krugerek Cullen hilda dagoela sinistarazi behar dio gaizkileari. Baina inondik inora espero ez zuena gertatuko da: Kruger traidoretzat hartuko dute. "Eraser" diru piloa batzen duen pelikula horietakoa da, biolentzia eta akzioz beterikoa. Zuzendariak oso partidu ona atera die aktore, efektu berezi eta dekoratuei ere bai. Kamara egon behar den lekuan dago beti.


## Zaraia zinemari botako diren pelikulak:

(Ez daude ordenean)

- **Mission imposible** (Tom Cruise)
- **Twister** (Tornado) (Bill Paxton, Helen Hunt)
- **El sustituto** (Tom Berenger)
- **Días de fortuna** (Andy Garcia)
- **Las dos caras de la verdad** (Richard Gere)
- **Trainspotting...**

## Umeentzako pelikulak:

- **Un loco a domicilio**
- **Drácula, un muerto muy contento y feliz**
- **Aventuras en la corte del Rey Arturo**
- **Un ladrón de cuatro manos**
- **Babe, el cerdito valiente**
- **Lago Ness...**



**ZUZENDARIA:** Charles Russell  
**AKTOREAK:** Arnold Schwarzenegger (Eraser/John Kruger), James Caan (Robert Deguerin), Vanessa Williams (Lee Cullen), James Coburn (Beller).



## AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



## TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26  
 Tfnoa: 79 20 67  
 ARETXABALETA





# Cruz Maria Ansoalde: Zaraia zinemaren arduraduna

1996ko martxoan zinea urtebetez itxita egon ondoren Cruz Maria Ansoalde ilusioz hartu zuen Aretxabaletako zinemaren ardura. Baina uda aurretik zinemak iraun zituen 3 hilabeteetan Ansoalderen ilusioak bertan behera gelditu ziren. Galerak nabarmenak izan ziren.

Ez zituen gure herriko ohiturak ezagutzen eta horregatik sesio desberdinak jarri zituen: 7 guztira. Bere asmoa herritarrei erraztasun gehiago ematea zen eta era berean jendearen ohiturak ezagutzea.

Ansoalde harrিতuta gelditu zen gure herriko zinemak izan zuen arrakasta txikia ikusita, botatako pelikulak onak izan baitziren bere ustetan.

Urtebete zinema itxita egon ondoren herrian zinera joateko ohitura galdu dela uste du azpeitiarrak. Alde horretatik, herritarrek ohitura berreskura dezaten ahalegin bat egin behar dela esaten du. "Zinemari indarra eman behar zaio, herriak berak ere zinea mantentzea nahi izango du. Herritarrek etxean ere eskaintza ona dagoela ikusi behar dute, bestela alperra da zinea zabaltzea".

Ohitura hauek aldatzea zaila dela ikusi arren oster

Zaraia zinemaren ardura daroma Cruz Maria Ansoalde azpeitiarrak.

Gazte-gaztetandik hasi zen zinemako lanetan eta mundu honetan esperientzia haundiko gizona dugu. Gaur egun Aretxabaletako zinemaz gain beste 5etaz ere arduratzen da.



ere ilusioz hartu du lana Ansoalde. Merkatuan dauden pelikularik onenak ekartzen saiatuko da horretarako.

Zinema munduan esperientzia haundiko gizona dugu. Gazte-gaztetandik bere aitak Azpeitiko zinema eraiki zuenean bertan hasi zen lanean. Gaur egun Gipuzkoako 6 zinematako ardura du bere esku: Azpeitia, Zumaia, Azkoitia, Beasain, Hernani eta Aretxabaletakoa.

Gurean moduko esperientziarik ez du izan beste herrietan. "Aretxabaleta baino biztanle gehiagoko herriak dira besteak baina zinerako afizioa ere haundiagoa da", -aitortzen du- "egia esan, Aretxabaletako zinema ere hala dago, zinemaren egoerak ere bere eragina du, soinuak, proiektatzeko makinak, aukien erasotasuna... ez dira egokienak".

"...baina ikusi egin behar" jarraitzen du- "ia ba, aurtengo zinemaldia aurrekoa baino

hobeto joaten zaidan". Esperantzarik gordetzen du azpeitiarrak, baina garbi dauka herri bateko ohiturak aldatzea zaila dela. Ahaleginik egin barik ez da geldituko ordea eta merkatuan dauden pelikularik berrienak ekarriko ditu horretarako, horra hor, Striptease, Eraser,...

***"Herritarrek etxean ere eskaintza ona dagoela ikusi behar dute.  
Bestela alperra da zinea zabaltzea"***

  
TABERNA  
**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETAKO • TFNOA.: 79 32 34

**JOLAS  
LEKU**  
Mitarte, 10  
Aretxabaleta

**IZOTZ  
Taberna**  
Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta



Irailaren bukaeran *Kaixo ura!* erakusketaren aurkezpen hitzaldian egon nintzen eta bertan esan ziren hainbat gauzaren inguruan matizazio batzuk egin beharrean nago.



## *Kaixo ura!* Bai baina...

**A**lde batetik oso positiboa deritzot beraiek *Uraren kultura berria* bezala izendaturiko kontzeptuari, izan ere guztiok ohartu behar gara ura altxor handia dela eta ondorioz ongi zaindu beharra daukagula.


Hitzaldi hortan jorraturiko beste gai bat ekarri nahi dut gogora orain. Koldo Azkoitia hizlariak adierazi zuenez Aretxabaletan zenbait saneamendu obra egingo dira hurrengo urteotan. Deba ibaia berreskuratu nahi da 2.000. urterako eta hori lortzeko soluzioa ura garbitzean bilatu dute. Horretarako, jakingo duzuenek, ur zikinen kolektorea sartuko dute gure kaleetan zehar bertan lantegi eta etxeetatik datozen urak garraiatzeko helburuarekin.

Baina proiektu honen inguruan nire kezka azaldu nahi dut, izan ere oinarriko planteamenduarekin ez dator bat. Plan hau burutu duten ingeniariak ibaia berreskuratzeko prozesuan ezinbesteko garrantzia duen hainbat *faktore biotiko* ez dute kontutan hartu eta hori sekulako akatsa da, zoritxarrez horrelako lan haundietan sarriegi gertatzen den akatsa hain zuzen ere. Ura garbitze soilarekin ibaiak bizitza berreskuratuko duela uste duzue?

Beba bizirik ikusi nahi badugu

beharrezkoa dugu ibaiaren bizi-baldintzak hobetzea. Ura garbitzea baldintza horietako bat da, ados, baina ez bakarra. Ibaietako landaretza falta da, zati luzetan zehar ibaiaren hondoan zemento lau eta gogorra baino ez dago, eta horretaz gain uraren korrontea bortitzegia da bizidun askorendako. Esate baterako ahateak edo arrainak etor daitezten nahi badugu, beraiek jaten dituzten landare eta ornogabeak ibaian mantendu beharko dira, landare eta ornogabe hauek ere beren habitat berezia eskatuko digutelarik. Landareek ibaiaren korronteari aurre egiteko euskarria behar dute, harriak adibidez. Harri hauek beraiek ere garrantzi handia dute ornogabeen bizi-iraupen eta kolonizazioaren arrakastan. Ibaier-tzetan ere landaredia beharrezkoa da faunaren dibertsitatea lortuko bada.

Jaunok, zuen asmoa ibaia orain dela 100 urte zegoen bezala uztea bada izugarri pozten naiz, eta nirekin batera herriko jende gehiena ere bai, baina hori lortzeko uste duzuen baino alderdi gehiago hartu behar ditugu kontutan, bizitzarekin eta bizidunekin erlazioa duten faktoreak hain zuzen ere.

 Mikel Arroibe

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA




Zenbaki

### Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
**Aretxabaleta**

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA**

**ARRASATE**

**HIZKUNTZ-ARAZOAK**

**HIZKETA ARAZOAK**

**AHOTS ARAZOAK**

**IRAKUR-IDATZ ARAZOAK**

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

Aretxabaletako Akordeoi Orkestra

ONGI ETORRI TXAPELDUNAK  
ZORIONAK



# Txapeldunak



Aretxabaletako Gaztetxoan Akordeoi Orkestra

# Zorionak txapeldunei!

Aretxabaletako bi akordeoi orkestrek pozik egoteko arrazoirik badute. Azken hiru urteetan landutako proiektuak lehen fruitua eman du. Alde batetik, Aretxabaletako akordeoi orkestrak lehen saria irabazi du Italiako Castelfidardo herrian egiten den Nazioarteko Akordeoi Jaialdian: 150.000 pezeta, diploma eta trofeoa. Gaztetxoen orkestrakoek berriz, Irun Hiria Akordeoi txapelketan parte hartu eta hauek ere euren kategorian lehen saria eskuratu dute: 75.000 pezeta, diploma eta trofeoa.

Lehen aldia da horrelako jaialdi batean parte hartzen dutena. Bide batez, ikasleei motibazio eta estimulu sendoagoa ematea zen helburua eta baita beste herrialde

batzuen aurrean zein mailatan dauden ikustea ere. Emaitza ezin hobea izan da. 3 urte hauetan egindako lanaren fruitua erakustera eman dute.

“Ez da kasualitate hutsa izan”, Juan Mari Orobengoak eta Luis Mari Elkorobarrutiak bi orkestratxo zuzendariak dioten moduan, egindako lana gogorra izan da, maixu, irakasle eta gurasoen aldetik ere.


Hona heltzeko eman beharreko pauso guztiak eman dituztela garbi daukate bi zuzendariek. Oinarriak finkatuta dituen proiektua da bi orkestrarena eta orain ezin dira gora begira gelditu. Aurrerantzean ere proiektuarekin gogor jarraitzeko asmoa dute.



*Bi maixuek jaialdiko esperientzia kontatu digute, Juan Josek Italiakoa, Luis Marik Irunekoa.*

## JUAN JOSE OROBENGOA

Akordeoi orkestrako zuzendaria



“Castelfidardo Italian Adriatik itsasora begira dagoen herria da. Akordeoiaren aberria dela esan daiteke, akordeoi enpresa ugari baitaude bertan.

Gure orkestrak 16 urtetik beherakoentzat den junior kategorian parte hartu zuen.


Taldeko partaideetatik %70a

16 urtetik beherakoa izatea zen baldintza. Yugoslavia, Italia eta Kroazia izan ziren gure kategoriara aurkeztu zirenak. Gu azkenak izan ginen jotzen eta guztiok oso urduri geunden. 25 minututako programa librea jo genuen. Bukatu bezain laster jendea zoriontzera etorri zitzaigun, gure errepertorioa asko gustatu zitzaieela esanez. Gero sariak irten zuenean ez usteko haundia hartu genuen. Gainera 2. saria desertu gelditu zen eta 3. Kroaziarrentzat izan zen.

Harriturik gelditu ginen bigarren saririk eman ez zutelako. Itxura denez puntu diferentzia haundia zegoelako izan zen. Guk 100tik 96 puntu lortu genituen. Oraindik ere sinistu ezinik gaude!”

## LUIS MARI ELKOROBARRUTIA

Gaztetxoen akordeoi orkestrako zuzendaria



“Iruneko akordeoi orkestren txapelketa Euskal Herrira eta Espainiara zabaldua zegoen. 3 orkestrek parte hartu zuten gure kategorian eta guri lehenak izatea tokatu zitzaigun.


Urduri atera ginen. Epaimahaikoak harriturik gelditu ziren orkestra hain gaztea eta horrenbeste partaide ikusita. Taldeko batezbesteko adina 12 urtetakoa baita.

Eliminatorioko bi faseak pasatu genituen, derri-gorrezko obra bat eta 10 minututako repertorio librea. Derrigorrezko obra asko landu beharra izan genuen, zailtasun haundiko obra baitzen gaztetxoentzat.

Egun horretan bertan jakin genuen irabazi genuela. Gure kategorian beste bi sariak desertu gelditu ziren. Epaimahaikoak oso zorrotzak izan ziren”.

Oso gustora gelditu nintzen egindako lanaz. Hemen egindako lana han isladatuta gelditu zen. Epaimahaikoek orkestraren adina ikusita oso ondo jo genuela esan ziguten”.

## Akordeoi orkestra



**JOANA  
MIRANDA**  
(14 urte)

- Noiztik akordeoia jotzen?

*Joana:* Txikitatik hasi nintzen, 6 bat urtekin.

*Igor:* Orain 10 bat urte hasi nintzen.

- Gogor entsaiatu duzue Italiara joan aurretik?

*Joana:* Bai, uztaila osoa egon ginen entsaiatzen. Goizean bi ordu jotzen genituen eta baita arratsaldetan ere. Irailean arratsaldetan entsaiatu dugu baina bakarkako lana ere hor egon da.

- Zer jotzen duzu?

*Igor:* Nik bajua jotzen dut, nik baino gehiago ikasi behar dute besteek.

- Merezi izan du esfortzuak?

*Igor:* Bai, Italiara joateak bakarrik merezi izan du eta gainera irabazitakoan oraindik eta gehiago.

- Italiako esperientzia zer moduzkoa izan da?

Oso ondo pasatu dugu.

- Irabazterik espero zenuten?

*Joana:* Ez genuen irabazterik pentsatzen, besteek maila haundia zuten.

Gure izena esan zutenean ez genuen sinesten, salto baten hasi ginen.

*Igor:* Ez, maixuak ere ez zuen espero.



**IGOR  
BIRITXINAGA**  
(19 urte)


**Aretxabaletako akordeoi orkestrako partaideak:**

Oihana Orruño, Maitane Apraiz, Garikoitz Iturbe, Aitor Apraiz, Agurtzane Azkargorta, Joana Miranda, Naiara Akizu, Ainhoa Izurrategi, Laura Perez, Itsaso Bidegain, Estibaliz Gruceta, Maider Zamalloa, Irati Cortes, Amaia Sampedro, Igor Biritxinaga, Xabier Eraña, Lourdes Martinez, Aitziber Izurrategi, Miren Lasagabaster, Saioa Elordui, Eneritz Elorza, Ainara Jorge, Zuhaitz Errasti, Iker Unzalu.

**Zuzendaria:** Juan Jose Orobengoa

**Perkusioa:** Jose Ramon Elkoro

## Gaztetxoan akordeoi orkestra



**ALEXANDER  
HERRANZ**  
(15 urte)

- Noiztik akordeoia jotzen?

*Alexander:* Orain 5 bat urte hasi nintzen.

*Aitziber:* 6 bat urtekin hasiko nintzen.

- Eta orkestran?

Hiru bat urte dira hasi ginela.

- Gustatzen zaizue akordeoia?

*Aitziber:* Bai, orain gainera gehiago. Horrelako irteerek gehiago motibatzen zaituzte. Gainera entsaioetan ondo pasatzen dugu.

- Zer jotzen duzue orkestran?

*Alexander:* Ahots desberdinak daude eta nik bajua jotzen dut.

*Aitziber:* Nik "cuartos".

- Entsaio asko egin zenituzten Irunera joan aurretik?

Bai, azkenengo egunetan batez ere.

- Irabazterik espero zenuten?

*Alexander:* Ez, gu baino askoz hobeak zirenak zeuden.



**AITZIBER  
KINTANILLA**  
(14 urte)

**Aretxabaletako gaztetxoan akordeoi orkestrako partaideak:**

Aiora Filarmendi, Lore Salaberria, Ianire Dávila, Oihana Arejolaleiba, Naiara Ramos, Idoia Zilauren, Uxue Zamalloa, Larraitx Antxia, Merixel Armentia, Nerea Arrese, Ekaitz Oihanguren, Irati Urzelai, Izaskun Gabilondo, Ione Lezeta, Lorea Lasagabaster, Ibon Elordui, Arantzazu Arietaleanizbeaskoa, Mirari Arando, Aitziber Kintanilla, Alexander Herranz, Nagore Custodio, Miren Arietaleanizbeaskoa, Maider Rébalo, Iurre Olaizola.

**Zuzendaria:** Luis Mari Elkorobarrutia

**Perkusioa:** Iñaki Alarcia

# Asier Guenetxea garaile atera zen kriteriumean

UDAko 50. urteurreneko ospakizunak aurrera doaz. Beste ekintza batzuen artean urriaren 13an txirrindularitzari eskeinitako ekitaldiak hartu zuen lekua eta txirrindulari profesionalen eta afizionatuen osatutako kriteriuma egin zen. Guztira 22 txirrindularik parte hartu zuten, 15 profesionalak eta 7 afizionatuk. Ikuskizun polita eskeini zuten txirrindulariek, izan ere, Durana, Mitarte, Andra Mari eta Errekabarrenetik zehar izan zen ibilbidea eta txirrindulariek oso azkar ematen zuten itzulia. Atxabaltar asko hurbildu zen proba ikustera.

Goizeko 11,30etan hasiera eman zitzaion kriteriumari eta 3 proba desberdin izan zituen: fondoa, puntuaketa eta kanporaketa. Azkenean 3 probetako emaitzak aztertu ondoren Asier Guenetxea atera zen garaile. Honela gelditu zen sailkapena:

## Fondo: (25 buelta)

- 1.- Jon Odriozola (Gewis)
- 2.- Asier Guenetxea (Euskadi)
- 3.- Alvaro Glez. Galdeano (Euskadi)

## Puntuaketa: (25 buelta)

- 1.- Iñigo Chaurreau (Polti)
- 2.- Asier Guenetxea (Euskadi)
- 3.- Luis Mari Diaz de Otazu (ONCE)

## Kanporaketa:

(Buelta bakoitzean azkena kanporatzen zen)

- 1.- Luis Mari Diaz de Otazu (ONCE)
- 2.- Iñigo Glez de Heredia (Euskadi)
- 3.- Asier Guenetxea (Euskadi)

## Generala:

- 1.- Asier Guenetxea (Euskadi)
- 2.- Luis Mari Diaz de Otazu (ONCE)
- 3.- Jon Odriozola (Gewis)

**Lehen afizionatua:** Sergio Frutos



Asier Guenetxea kriteriumeko momentu batean



Kriteriumeko irabazleak, Luis Mari Diaz de Otazu, Asier Guenetxea eta Jon Odriozola

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

INDUSTRIALDEA  
MEDIKU-ZENTROA

Luis Ormaño  
Medikua  
Zarraia  
Masajak eta osteopatia

Industrialdea  
Pabelloi F-O b  
79 06 82

ARETXABAleta

**Dorleta**  
Taberna

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
Aretxabaleta

**Duela sei hilabete Kangchenjungatik bueltatu ziren. Nork esango zuen horren hilabete gutxiren barruan beste proiektu batek itxoiten zituela?**

**Zein azkar pasatzen den denbora. Urria amaitzean dago eta Inurrategi anaiak, Josu Bereziartuarekin batera Shisha Pangmako (8.027 m) gailurretik itzuli berri dira, nekatuta baina beti bezala aurrera jarraitzeko ilusioz.**



## *“Itxoiten jakin dugu eta mendia egiteko momentu egokia aukeratzen”*

**B**ai, urriaren 11n lortu zuten Shisha Pangmako tontorrera iristea eta astebete beranduago gure artean genituen. Berriro ere, omenaldi beroa egin zitzaion Murruxio M. Elkartearen eskutik. Dantzariak, lorak, txanpaina, eta Paco Iriondo eta 3 mendigoizaleen berbek bete zuten ekitaldia. Bukatzean, umeez ez zuten autografoa eskatzeko aukerarik galdu eta 3 espediziokideek paper artean utzi behar izan zuten euren zirriborroa.

### **Aurrera ala atzera**

Espedizio guztiak izaten dira gogorak baina azken hau gogorra eta berezia izan da aldi berean. Himalayako paraje galdu horietan garaipena eta zoritxarra oso gertu daude. Esaldiak garbi definitzen ditu Shisha Pangma espedizioan gertatutako bi alderdiak. Irailaren 16an Jose Luis Zuloaga Zulu lagunaren heriotza gertatu zen, honek jakina gogor markatu zuen espedizioa.

Erabaki zail bat hartzeko garaia heldu zitzaion. “Bi parametroren arabera hartu behar izan genuen erabakia, etxera etorri edo eta mendia egiteko animorik bageneukan planteatu genion elkarri. Azkenean bi aukeren artean oreka bat bilatzen jakin genuen”. Azaltzen du Felixek.

Josuk berriro mendira bueltatzean ondo egin zutela uste du. “Hasieran dudan izan ginen, baina poliki-poliki animatzen joan ginen eta talde gogor bat bezala une txarrak gainditzen jakin genuen. Gure lanean kontzentratu ginen”.

Zaila izan zen aurrera jarraitzeko erabakia hartzea baina hiru lagunek jarri zuten konfidantza beharrezkoa izan zen horretarako.

### **Momentu egokia**

Mendian gelditzeko erabakia hartua zegoen eta irailaren bukatzean jarria zuten zita. Hala ere, eguraldiak huts egin zien oraingoan. “Eguraldi arraroa egin du. Normalean irailaren 20tik aurrera hobetu egiten du eta aurten alde-

rantziz gertatu zaigu. Urriaren lehen astea pasa arte behintzat oso eguraldi kaxkarra egin zigun”. Aitortzen du azpeitiarrak. “Egunak luze pasatu ziren. Mendiaren kondizioak eta eguraldia hobetu arte bertan egon ginen. Etxoiten jakin genuen eta baita momentu egokia aukeratzen ere”.

Igoera gogorra izan zen, pausoz-pauso igo behar izan zuten Shisha Pangma hego-mendebaldeko maldatik. Hotza eta nekea aldean baina denen gogoekin tontorrera iritsi ziren. Oraingo honetan eguraldia lagun izan zuten eta lasai ibili ziren gailurrean, 45 minutu egin zituzten bertan.

Hirukote egokia osatu dute Josu Bereziartua eta Felix eta Alberto Inurrategik. Berriz ere erreplikatzeko modukoa zioen Felixek. Josuk ere oso ondo konpondu direla aipatzen zuen, nahiz eta espedizioa bi atxabaltarrez eta azpeitiar batez osatuta egon.

Datorren urtean beste proiekturik izango dela aipatzen zuen Albertok. Oraindik behintzat ezer garbirik ez. Deskanstatu ostean izango dute astirik horretan pentsatzeko.



*Umeek ez zituzten baketan utzi hiru mendigoizaleak. Argazkian Josu Bereziartua*

# Iban Sanchez gasteiztarrak irabazi zuen UDAko 50. urteurrena ospatzeko antolatutako kross herrikoia



150 partehartzaitetik gora egon zen krossean

Eguraldia lagun, giro bikaina sortu zen pasatu den domekan UDAREN 50. urteurrena ospatzeko antolatutako kross herrikoian. Lagun asko pilatu zen kalean krossa ikusteko eta egia esan maila bikaina egon zen partehartzaileen aldetik.

Guztira 150 korrikalaritik gora parte hartu zuten. Horien artean atleta ezagunak: gizonezkoetan, Kamel Ziani oriotarra, Abdel Majid marrokiarra,

Cesar Perez donostiarra... Baina ezustekoa gasteiztar batek eman zuen azkenean, Iban Sanchezek hain zuzen ere. Iban, Kamel eta Abdel lasterketaren buruan joan ziren ibilbidean zehar baina azkenean Ibanek aurrea hartu zuen, 2. Kamel sartu zen eta 3. Abdel.

Esan beharra dago iazko urtean garai honetan antolatu zen J. R. Arana Memorialean Abdel Majid izan zela irabazlea baina aurtengo urtean 3. postuaz konformatu behar izan zuen.

Emakumezkoetan, Nieves Zarza izan zen irabazlea, 2. Rosi Talabera eta 3. Angelica Manrique. Haez gain beste hiru sari ere eman ziren emakumezkoetan.

Sariak pertsona desberdinek banatu zituzten.

Horien artean: Anton Martinez de Agirre UDAK izan dituen lehendakari guztietatik beteranoena, Bixente Etxeandia, UDAko lehendakaria, Juan Antonio Rodriguez alkatea, Juanjo Sabadie, Gipuzkoako Atletismo Federazioko zuzendaria eta gure atleta olinpikoak, Martin Fiz munduko txapelduna eta Diego Garcia Europako 2. txapelduna.

## Irabazleak eta sariak:

### Gizonezkoetan:

- |                             |                        |
|-----------------------------|------------------------|
| 1.- Iban Sanchez (Gasteiz)  | 50.000 pta eta trofeoa |
| 2.- Kamel Ziani (Orio)      | 40.000 pta eta trofeoa |
| 3.- Abdel Majid (Marruecos) | 30.000 pta eta trofeoa |
| 4.- Cesar Perez (Donostia)  | 25.000 pta.            |

- |                                |            |
|--------------------------------|------------|
| 5.- Roberto Ruiz (Gasteiz)     | 20.000 pta |
| 6.- Iñaki Tapia (Orio)         | 15.000 pta |
| 7.- Josetxo Baweriza (Hendaia) | 10.000 pta |

**Lehenengo atxabaltarra:** Joseba Larrinaga



Iban Sanchez gasteiztarra helmugaratu zen unea



**Emakumezkoetan:**

- 1.- Nieves Zarza (Gasteiz) 30.000 pta eta trofeoa
- 2.- Rosi Talabera (Hendaia) 25.000 pta eta trofeoa
- 3.- Angelica Manrique (Gasteiz) 20.000 pta eta trofeoa
- 4.- Raquel Llanos (Gasteiz) 15.000 pta.
- 5.- Cahila Bravo (Santurtzi) 10.000 pta
- 6.- Lucia Garate (Gasteiz) 5.000 pta

**Lehenengo atxabaltarra:** M<sup>a</sup> Elena Llorente

**Beste mailatako irabazleak:**

**Junior mailan:**

- 1.go emakumea:** Lucia Garate (Gasteiz)  
Trofeoa eta 10.000 pezeta.
- 1.go gizezkoa:** Jorge Iruetagoien (Mutriku)  
Trofeoa eta 15.000 pezeta.
- Herriko lehena:** Igor Dublan (Saria)  
(emakumerik ez zen egon)

**Beteranoak:**

- 1.go emakumea:** Rosi Talabera (Hendaia)  
(Trofeoa eta 10.000 pezeta)
- 1.go gizezkoa:** Javier Mentxaka (Arrasate)  
(Trofeoa eta 15.000 pezeta)
- Herriko lehenak:** Maria Elena Llorente eta Jesus Lombide. (Saria)



*Lehenengo beteranoak. Horien artean lehen atxabaltarrak M<sup>a</sup> Elena Llorente eta Jesus Lombide*



*Nieves Zarza gasteiztarra helmugaratu zen ueua*

**Omenaldi polita atleta olinpikoei**

Krossa amaitu zenean omenaldia egin zitzaion argazkian dituzuen Diego Garcia, Joseba Larrinaga eta Martin Fiz atleta olinpikoei. Javier Condek ezin izan zuen ekitaldira etorri baina bazkarirako etorri zen.

Laurek makila bana jaso zuten oparizat. Honez gain, Joseba Larrinagak Almen Elkartekoa den Javier Etxenagusiaren eskutik itsasontzia jaso zuen. Saiatu Fundaziokoa den Txema Alonsok berriz 100.000 pezetako txekoa eman zion.



**PAGALDAI**  
Opari denda  
Durana, 33 ☎ 79 10 14  
ARETXABALETA

BEIRALAN  
**KRISTALDEGIA**  
Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

**OSKAR GARAJEA**  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA

**KIXKOR TABERNA**  
Mitarte 13 ☎ 79 20 60  
Aretxabaleta



Bai, eskolatik kanpo praktikatzen dut kirola, futbola, saskibaloia... pistinara ere joaten naiz, baina beti nire kontu. Gehienetan kirol etxera joaten naiz. Asteaz zehar marrazketa egiten dut eskola orduetatik kanpo.

*Egiten duzu kiroltik eskola orduetatik kanpo?*

Bai, futboleaz jokatzen dut Almenen, ohorezko infantil mailan. 3 ordu entrenatzen dut astero eta astebukaeretan partidua izaten dugu. Pelotan ere egiten dut batzutan. Kirolaz gain ingeleza ere ikasten dut.



**Patricia de la Fuente**


12 urte



**Jon Eskobales**

13 urte

# Eskola ostean zer? Kirola, musika...



**Andoni Gomez**

11 urte



**Veronica Barbero**

16 urte

Lagunekin futboleaz jolasten dut. Peña Zubik antolatzen dituen torneoetan ere parte hartzen dut. Beste batzutan saskibaloian ere jolasten dut. Kirola egiteaz gain ingeleseko klaseetara ere joaten naiz astean 2 ordutan.

*Nola betetzen duzu eskolatik kanpoko ordutegia?*

Lehen saskibaloian jokatzen nuen baina orain ez, hankan arazo bat daukat eta. Bestela saskibaloian eta igeri egitea gustatzen zait. Eskola orduetatik kanpo ez dut ezer berezirik egiten.

## MIKELOS

Moda  
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67  
ARETXABALETA

## ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

## DOIKALSE

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 79 82 44

## JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

## GARBITU S. KOOP

*Garbiketara  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

## MartiW

RELOJERIA • BIFIXATEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan  
Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72



## *Ezkon aurreko despedida*

**E**zkonu aurretik beti ezagutu izan ditugu despedidak. Jakina, garai batean ez ziren orain modukoak egiten. Argazkikoek **Nati Peñaren** ezkon aurreko despedida ospatu zuten 1947. urtean. Despedidetan meriendak egitea zen ohitura, txokolatea txurroekin... kasu honetan Natiren etxean bertan ospatu zen. Goiko fotografia merienda ostean Natiren etxeko patioan atera zuten, gaur egun Iparragirre kalea dagoen inguru hortan.

Fotografiako neskek kafe ontzia erregalatu zioten Natiri. Batzuk koadrilakoak zituen, inguruko lagunak beste batzuk, adin desberdinetako jendea batzen zen orduko despedidetan eta ez koadrilakoak bakarrik.

Goian ezkerretik eskumara: **Maritxu Arregi, Lucia Peña, M<sup>a</sup> Kristina Zuazabeitia, Joakina Heriz, Kresencia Lizarralde, Maritxu Etxandia, Dolores Etxebarria, Maritxu Ugalde, Pilar Azkarretazabal, Benigna Larrinaga, Mercedes Aranguren, Pilar Leturia, Sabina Aranguren.**

Erdiko iladan: **Arantxa Zuazua, Asun Arregi, M<sup>a</sup> Kristina Peña, Juanita Peña, Nati Peña, Maritxu Larrañaga, M<sup>a</sup> Luisa Zuazua, Dionisia Arkeros, Katalina Lasagabaster.**

Beheko iladan: **Gabina Lopez de Armentia, Fernando Markina, M<sup>a</sup> Josefa Iturrospe, Kontxita Peña, Eulalia Zuazabeitia, Rosario Arkauz.**

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Aretxabaleta

**BENGOA**  
URDAITEGIA

Bertako okelak eta  
mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79

**OSKAR**

HARATEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

**MEMESA S.L.**

**Industriaren alde**

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA

# Denok takarraran



M.J. Aretxaga

Urte sasoi honetan, opor aurreko erregimenak ahaztu eta gure mitxelinak bazkari ederrekin gizentzen ditugun bitartean, perretxikuak baino ugariagoak dira korrikalariak. Edozein lekutan topatu ditzakezue, Urkulun, bariantean, herriko kaleetan... Egun hauetan egiten dira inguru hauetako karrera ezagunenak eta hori gure herrian ere dexente igartzen da.

Donostiako maratoia izaten da froga garrantzitsua. Bertan atxabaltar partehartzaile batzuk ere izan genituen: **Fernando Uribesalgo**, **Joseba Gonzalez**, **Oier Etxebarria** eta **Jesus Lombide**.

**Eduardo Altube** eta **Teodulo Toledo** ere Donostian egon ziren pasatu den asteburuan.

Donostiako jubilatuko eta pentsionistek antolatutako marmitako txapelketan lehen saria eskuratu zuten. **Argiñano** izan zen epailea eta atxabaltarren maila ikusita telebistan lekua kenduko diotenaren beldur, arduratuta gelditu zen.

Danok dakizue Aretxabaletan zinea martxan dagoela. Bertan pelikulak proiektatuko dituztenak **Igor San Juan** eta **Jokin Jauregi** izango dira. Badakizue hortaz, zentzurarik egoten bada nori kexatu.

Pelikuletan ez baina medioetan lanean dabilzanak ere baditugu herrian. **Andoni Migel** eta **Gorka Etxabe** kazetaritzako ikasleak beka baten bitartez Gasteizeko Euskadi Irratian daude lanean. Aber hauek behintzat berriak zuzen ematen dituzten.

Janari kontuetara bueltatuz esan behar da domekan UDAk zozketatu zuen marisko lotea **Mari Carmen Olabek** irabazi zuela. Zorionak eta kontuz Azido Urikoaz.

Zozketa kontu hauekin hain pozik ez daudenak epaile izateko aukeratutako atxabaltarrak dira. Izenen zerrenda udaletxean dago. Lasai hartu, hori baino gauza okerragoak badaude eta.

Eta eguraldi ederra dagoenez ni ere takarraran egitera noa, neska gutxiago ikusten da eta.


Esaldi hau ulertu baduzu, mesedez deitu 77 09 70 telefonora eta azaldu iezaguzu.

Marrazkiak: Mikel Arroiabe

**loramendi**  
euskera elkarte

## Martin Fiz eta Diego Garcia

**M**aratoian munduko txapelduna dugu Martin Fiz gasteiztarra. Datorren azaroaren 3an ospatuko den Nueva Yorkeko maratoian parte hartuko du eta gogor entrenatzen ari da proba horretarako. Diego Garcia berriz, Europako bigarrena dugu. Azkoitian jaioa bada ere gaur egun Azpeitian bizi da. Azken honek Japoniako maratoian parte hartuko du eta ilusio eta esperantza haundiak ditu bere errekorra hobetu eta lehenengo hiruren artean sartzeko.



• Zer iruditu zaizue Aretxabaletan egin den krossa?

**Diego:** *Oso garrantzitsua da horrelako probak antolatzea, bai atzetik datozen gazteei begira eta baita popularrentzako ere. Guri ere ilusio handia egin digu hona etorri eta omenaldi hau eskaintzeak.*

• Atlantako olinpiadetan parte hartu zenuten. Nola joan zen?

**Martin:** *Laugarrena izan nintzen Atlantako olinpiadetan. Medaila bat lortu nahi nuen eta alde horretatik desiluzionatuta bukatu nuen.*

**Diego:** *Zorte txarra izan nuen. Bareak heldu zidan eta ezinezkoa izan zen medaila ateratzea. Pena da baina ahaztuta daukat dagoeneko.*

• Maratoi garrantzitsuak dituzue orain aurrez-aurre.

**Martin:** *Bai, azaroaren 3an Nueva Yorkeko maratoia korrituko dut. Gogor entrenatzen ari naiz eta fisikoki oso gogor nago. Beldur naiz Atlantan izan nuen desgastetik guztiz errekueratu ete naizen. Dena ondo joango balitz ilusio handia egingo lidake podium-era igotzeak.*

**Diego:** *Hurrengo ilean Japoneko maratoian parte hartuko dut. Ondo aurkitzen naiz eta hor izango dut aukera nire maila erakutsi eta nire errekorra hobetzeko, 2 ordu eta 9 minututara jeistea nahi dut eta lehenengo hiruren artean sartzea.*

• Zeintzuk dira zuein etsai garrantzitsuenak?

**M:** *Maila oso handia egongo da, afrikarra, asiarrak... Hor egongo dira Tomas Endeti keniarra, Espinosa mexikarra, e.a.*

**D:** *Munduko onenek parte hartuko dute proban, Dionisio Aceron mexikarra, Pinto Castro Portugesa... Ni hemendik Alberto Juzdadorekin joango naiz eta esperantza haundiekin nago.*

• Gogor entrenatzen ibiliko zarete...

**D:** *Oso gogor. Maila handia dagoenez gogor entrenatu beharra dago, astero 240 Km egiten ditut.*


• Zeintzuk dira zuein afizioak?

**M:** *Kirol guztiak gustatzen zaizkit. Baina korrika egiteaz gain familiaz egotea eta deskantsatzea gustatzen zait.*

**D:** *Denbora libre gutxi daukat. Mendira joatea asko gustatzen zait.*

• Gogorra da atletismotik bizitzea?

**M:** *Bai, gogorra da baina gustatzen zaidan lanbide batetik bizimodua ateratzea polita da aldi berean.*

liburu berriak  
liburutegian

**O**raingo honetan liburu berrien zerrenda bat emango dizuegu hemendik urte amaiera arte zer irakurri aukeratu ahal izateko. Zerrenda honetan agertzen direnak baino askoz liburu gehiago erosi ditugu, baina denak ezin diranez jarri aukeraketa bat egin dugu:

**Nobelak:**

- Tiempo de errores/Mohames Chukri
- Congo/Michael Crichton
- Más alla del jardín/Antonio Gala
- La casa de los sueños/Pauline Gedge
- Legítima defensa/John Grisham
- La partida del profesor Martens/Jaan Kross
- Tratado de las pasiones/Antonio Lobo Antunes
- Ahí te quedas/Terry MacMillan
- Piel de centauro/Francisco Javier Satué
- El cartero de Neruda/Antonio Skarmeta

**Haur literatura:**

- Los mejores amigos/Rachel Anderson
- Vamos a buscar un tesoro/Janosch
- El oso valiente y el conejo miedoso/Hans de Beer
- La leyenda de la luna llena/Michael Ende
- El capirote de Onofre/Jesús Gabán
- El oso pirata/Rindert Kromhout
- El país de Kalimbún/Fernando Pulín
- El león, la bruja y el armario/Clive S. Lewis
- El último lobo/Mino Milani
- La sonámbula en la ciudad laberinto/  
Juan Manuel Gisbert
- La princesa y los trasgos/George MacDonald

✉ Joseba Lopez de Armentia

**ARRASATE**



**Urriak 25**

**ANTZERKIA**

Taun Taun taldearen eskutik **"UBU BABEI"** antzezlan. Amaia Antzokian gaueko 10,30etan. Sarrera 800 pezeta, gazte txartelarekin 600 pezeta.

**Urriak 31 eguna**

**ZINEA**

**"Eremu urriko hizkuntzen zinemaldiko filme eta laburmetraia euskarazko azpigituluekin". Denko eta Branwer** izango dira botako diren laburmetraiak. Amaia Antzokian gaueko 9,30etan. Sarrera 400 pezeta, gazte txartelarekin 350 pezeta.

**ERAKUSKETAK**

**GAZTEAK ETA INTSUMISIOA ARGAZKIAK.** Monterron kultur etxean urriaren 18tik 31ra bitartean.

**KOMIKIAK 100 KOMIKIAK.** Harresi aretoa urriaren 18tik azaroaren 3ra bitartean. Orduategia: egunero 18-20. Zapatu eta jaiegunetan: 12-14; 16-20.

**Eremu urriko hizkuntzen laburmetraia**

**\* Denko laburmetraia:**

**Nazionalitatea:** Afrika  
**Hizkuntza:** Mandinka  
**Urtea:** 1992  
**Iraupena:** 20 minutu  
**Zuzendaria:** Mohamed Camara  
**Aktoreak:** Mohamed Camara/Mah Coulibaly

**\* Branwen laburmetraia:**

**Nazionalitatea:** Gales  
**Hizkuntza:** Galesera eta Irlandera  
**Urtea:** 1994  
**Iraupena:** 94 minutu  
**Zuzendaria:** Ceri Sherlock  
**Aktoreak:** Richard Lynch/Jo Roberts/Morfudd Hughes/Robert Gwyn...

Amaia Antzokian urriaren 31an gaueko 9,30etan hasita

**ESKORIATZA**



**Urriak 26**

**ANTZERKIA EUSKARAZ**

**"XAGU APIA"** Txalo produktzioak. Gaueko 10,30etan frontoian. Sarrera 800 pezeta, gazte txartelarekin 500 pta.

**ARETXAZOKA**

• Udan giltza batzuk aurkitu ziren Ugaztegi inguruan. Telefonoa: 79 01 05.

• San Migeletan urrezko pultsera bat galdu zen. Balore erreala baino garrantzitsuagoa da duen balore sentimental, pertsonala. Tfnoa: 79 54 04

• San Migeletan txaketa bakeroa galdu zen bi giltzarekin. Informaziorik duenak deitu 79 01 05 telefonora.

• Egunero Bergararik Gasteizera doan autobus bat osatzeko jendea behar da. 14,30etan irten eta 20etan itzultzeko. Telefonoa: 79 32 58. Amaia.

**LANA**

• **Ameriketean au-pair.** Gai honen inguruan informazio gehiago gura duenak deitu telefono honetara: (943) 79 41 83 (Osane Ayastuy).

• **Andereño diplomatua klase partikularrak emateko gertu dago.** (OHoko lehen mailatik BOKo bigarren mailararte). Telefonoa: 79 75 23.

• **Farmazian lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu.** (OHO eta BO zientzia gaiak). Tfnoa: 79 74 73.

• **Etxeko lanak edo antzekoak egiteko neska bat eskaintzen da.** Tfnoa: 79 09 08 Elenagatik galdetu.

**ETXEBIZITZA**

• **Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke.** 79 16 15 telefonora deitu goizez 10etatik 12etara eta arratsaldez 3,30etatik 8etara bitartean. Ritagatik galdetu.

• **Pisua salgai dago Durana kaleko 33. zenbakian** (3. solairua eskuma). Telefonoa 79 64 93. (Eguerdian eta arratsaldean).

• **Garaje bat behar dut** Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

• **Garaje bat salgai dago** Errekabarrenen. Interesatuta zaudetenok deitu 79 69 61 telefonora. (Arratsaldeko 8etatik 10etara bitartean).

• **82 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai.** Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

• **Aretxabaletan pisu bat alokatu gura nuke.** Telefonoa: 77 04 58 (Erantzungailuak erantzungo du)

**Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali Kultur etxean dagoen buzoira edo eta deitu 79 01 05 telefonora.**



**Urriak 26 zapatua**

**HIRUATX TALDEAK ANTOLATUTA ARTE MARTZIALEN EMANALDIA ARRASATEN**  
Musakolakako kiroldegian arratsaldeko 3retan hasita.

**Urriak 27 domeka**

**ZARAIA MENDI TALDEAK GANBORa IRTEERA**

**Azaroak 1 eguakotxa**

**DOMU SANTU EGUNA**

**Azaroak 1, 2, 3**

**MENDIOLABURUN AKANPADA ZARAIA M. Taldeak MENDIOLABURURA**  
egingo du irteera. Bertan mendi irteerak, eskalada... egiteko aukera izango dute.

# Zinea

Urriak 25, 26, 27, 28

**STRIPTEASE**

Azaroak 1, 2, 3, 4

**ERASER**

**ORDUTEGIA:**

Eguakotxa-zapatua: 10,15

Domeka: 7,30 -10,15

Astelehena: 10,15

## Euskal kantak ikasi gura dituzula?

Euskal kantak ikasi gura badituzu Loramendi Elkartearen aukera ona duzu. Horrez gain kitarra jotzen baldin badakizu askoz ere hobeto.

Horretarako jo Loramendi Elkartera eta bertan denon artean erabakiko dituzue orduak, egunak eta kantuek. Argibide gehiagorako deitu 77 09 70 telefonoa)

**Animatu!**



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Aretxabaleta**

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi E.E. 77 0970
- Murruxio M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otorora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

**Udaltzaingoa**

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 77 91 06
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

**Denetarik**

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdia (Arrasate) 77 10 43
- SOS Deiak 088

**ENBOR**

*Eloy Borgas Iglesias*

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51



**SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK**

**Euskadiko Kutxa Taldekoa**

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

**Artano Taberna**

Herriko Plaza  
ARETXABAETA

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g  
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABAETA



Basabe Poligonoa A-15  
79 34 28  
ARETXABAETA

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

# Shishua pangyma 96

Iñurrategi anaiak eta  
Mugarri gain-gainean  
Zorionak!



**MUGARRI**

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tfnoa: 79 07 44-54 • Faxa: 79 62 54

